

GALDEREN BIDEZ GIDATUTAKO EZTABAIDA

Teknika hau gogoeta bultzatzeko eta jardueran zehar gertaturikoari buruzko eztabaida zuzentzeko erabiltzen da. Jarduera bakoitzaren fitxan bere helburuekin loturiko galderak dauden arren, jarduera amaitu ondoko eztabaida irekia eta malgua da; beraz, jarduera egiterakoan ikusitakoarekin erlazionaturiko galderak ere sar ditzakegu.

Teknika gai bati buruzko iritziak eta informazioa modu informalean trukatzean datza. Dinamizatazaileak eztabaida gidatu eta bultzatuko du, taldekideei galderak eginez.

Jardueraren osteko eztabaida behar bezala antolatuz gero, ikasketa teknika bikaina izan daiteke. Eztabaidak arrazoibidea, ulermena, gogoeta, azterketa kritikorako gaitasuna, komunikazioa, entzutea eta tolerantzia sustatzen ditu. Aurreiritziak zein aldez aurretik pentsatutako ideiak ezabatzen eta adimena aberasten laguntzen du, sarritan norberarenetatik desberdinak diren iritziak, ideiak eta ikuspuntuak trukatzeko direlako.

Garaigordobil, M. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 8 a 10 años. Ediciones Pirámide. Madrid. 2003.